

egunekoa

Jon Sarasola

(Segiko kidea)

Lepoan hartu ta segi aurrera

Lepoan hartu ta segi aurrera. Hauxe da abesti zahar batek esaten duena. Euskal Herriak azken hamarkadetan bizi izandako eraso eta egoera latzen aurrean dozena alditan errepikatu izan den esaldia. Egoera zailenetan ere Ezker Abertzaleak eta bere kidegoak aurrera segitzeko determinazio osoa erakutsi izan du beti: Franco diktadorearen garaian, militanteen kontrako guda zikina aplikatua izan denean, eraso errepresibo eta sarekada ezberdinen aurrean, eta baita estatu espainolak erakunde ezberdinen jarduera bertan behera utzi duenean ere.

Herri honek azken hamarkadetan zerbait erakutsi baldin badu, hori egoera zailenetan ere aurrera segitzeko gaitasuna eta determinazioa izan da. Gaur egun Euskal Herriak bizi duen bortizkeria eta zapalkuntza egoera iraunkorraren aurrean borrokak aurrera jarraituko duela ez dago inolako duda izpirik, borroka izan delako eta aurrerantzean ere izanen delako herri honetan demokrazia eta justizia lortzea ahalbidetuko duena.

Azken urte hauetan estrategia errepresiboa berregokitu eta definitiboki Ezker Abertzalea mapa politikotik eta gure herriaren egunerokotasunetik desagerrarazteko azken saiakera egiten ari da estatu espainola, beti ere estatu frantsesaren konplizitatea eta parte-hartze zuzenarekin. Horretarako Ezker Abertzaleko egitura ezberdinetan dauden ehunka kide atxilotu eta kartzelatu ditu, estatu espainolean erakunde ezberdinen jarduera aurrera eramatea delitu bilakatu dutelarik ere.

Batasuna izaten ari da azken egunotan faxistek pozoitutako dardoen jomugan kokatu izan duten diana. Estatuaren ikuspegitik estrategia baten kulminazioa dakar eraso berri honek, erakunde ezberdinen aurka aritu eta gero bukaerarako utzi baitutelako ez-

kertiar eta independentisten herritarren batasuna, Ezker Abertzaleko erreferente politiko nagusia.

Lepoan hartu ta segi aurrera. Salbuespen egoera eta eskubideen urraketa sistematikoa salatzearekin ez dugu aski. Euskal Herria definitiboki askatasunera eramango duen bidea jorratu beharra daukagu. Hortaz, benetako euskal demokrazia eraikitze beharra agerikoa da, estatu biek Euskal Herriaren inguruan hartzen dituzten erabakiei muzin eginez eta alorrez alor intsumisioa eta desobedientzia garatzeaz gain gure herria egunez egun berreraikitzen. Hau da memento hauetan aurrera egiteko eta herri hau beste egoera juridiko-politiko batean lehenbailehen kokatzeko daukagun aukera bakarra.

Esan bezala, Ezker Abertzale osoaren *klandestinizazioa* bilatzen duen azkeneko eraso honen aurretik bestelako erasoak pairatu behar izan ditu erakuntza nazionalaren estrategian motorra den Ezker Abertzaleak. Ekin, Xaki, Haika, Segi, Askatasuna... horren adibide dira.

Zehazki Segiren kontrako operazioa eta sarekada saihestea lortu zuen Eneko Aizpuru donostiar gaztea, hilabete geroago izan zen atxilotua Baionan. Hortaz eta Garzon epaileak bere kontra zabaldutako nazioarte mailako bilatze eta atxilotze agindua dela medio Agenen (estatu frantsesa) espetxeratua izan zen, bere kontrako estradizio prozedura orduan hasi zelarik. Nahiz eta prozedura akats larrien ondorioz estatu frantsesak Eneko askatu behar izan duen, estradizio prozesuak aurrera darrai, epaiketa Irailaren 25ean burutuko delarik Agenek epaitegian.

Baina zein da bere delitua? Bere delitua Segiko militantea izatea eta modu antolatu batean Independentzia eta Sozialismoaren alde eta herri honen eskubideen defentsan aritzea da. Esta-

tu frantziarra Euskal Herriaren zapalkuntzan buru-belarri aritzeaz gain, bat egin du bete-betea espainiar estatuak azkenaldian daraman bide errepresiboarekin. Jadanik euskal herritar bezala ditugun eskubideak zanpatzearekin aski ez eta erakunde zein militante politikoak egurtzeari ekin dio, Segi edota Askatasuneko (Juan Mari Olano) militanteak atxilotu, espetxeratu eta estraditatu. Izan ere frantziar estatuak ez baitu soilik Eneko epaituko, frantziar estatuak Segi gazte erakunde eta honen jardura politikoa du epaituko, finean frantziar estatuak Euskal Herriaren alde antolatutik borrokan gabil-tzan gazte euskaldun guztiak epaituko gaitu.

Frantzia eta Espainiaren aurrean intsumituak gara, haiek ez daukate inolako zilegitasunik gure jardura politikoa epaitzeko ez eta erakundearen kontra aritzeko. Nor da estatu espainola Segi gazte erakunde lege kanpo uzteko? Nor da estatu frantsesa Segiko kide bat bere jardueragatik atxilotu, espetxeratu eta estraditatzeko? Haiek dira Euskal Herrian lege kanpo dau-denak.

Beraz, eta gure herriak zein bertako biztanleek pairatzen duten eskubideen urraketaren aurrean (Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea, antolatze eskubidea, adierazpen askatasuna) mobilizatzea eta borrokatzea besterik ez zaigu gelditzen. Garai hauetan oinarritzko eskubide demokratikoenak ere oparitu dizkigutela norbaitek uste badu, oker dabil. Arriskatu gabe ez dugu ezer lortuko, borroka eta konfrontaziorik gabe herri hau ez da existituko. Eta borroka bakoitza bere barrenean gorderik daramatzan sentimendu eta duintasunaren adierazle nagusia da. Gaur, bihar baino hobeto, denok borrokara. Irailaren 25ean beste hitzordu bat daukagu. Lepoan hartu ta segi aurrera!

zutabea

Ana Arregi

Zubiak

Laguna: arazoak lagun artean planteatzen dira, konfidentziak bezala, konfiantza osoz. Lagunaren figura Grezia klasikoaren aztarna omen dugu, eta Aintzinako Greziar filoso-fiaren garapenean adiskidearen presentzia inportantea da oso. Badirudi, aurreko zibilizazioek jakintsuak zituztela, baina grekoek jakintsuen desagerpena berretsi omen zuten eta filosofoek haien lekua hartu zuten. Sokrateren irudia dugu adibide, lagunez inguratutik, haiekin solasean eta paseoan. Galderak beti erantzunak baino inportanteagoak. Eta aintzinako grekoen bilobak gara, omen. Lagunaren hitzak funtsezkoak dira, batez ere gure ideien aurrean beste ikuspuntu bat suposatzen dutelako eta gure pentsaerak bestearen dimentsioa irabazten du. Zentzu geometriko batean, espazioa erdiesten dugu, eta grekoak, berriro ere, izan ziren espazioa lehen aldiz aztertu zutenak. Gizartearen garapenean, bai filosofian, zein artean edo zientzietan, adiskidetasunak urrats ikusezinak egin ditu eta polita izango litzateke adiskidetasunaren arkeologia ikastea. Baina nola zehaztu *lagun* hitzaren ertzak? Lagunak estimatzen ditugu. Eta maite. Hau da kanpamendua ezartzeko behar dudana oinarria.

Zoria: zerbait gertatu da baina ezin dugu asmatu nola gertatu den; bere zergatiaren haria galdu dugu. Begien aurrean egoera berria suertatu zaigu eta kausak zehaztu gabe ezin garenez bizi, patua edota kasualitatea deitzen diogu kausalitate mota berezi honi. Kausalitate berezia, bai, bere arauak ezagutzen ez ditugu eta. Inpertsionala izanda ere, patuari ekintza pertsonalak suposatzen dizkiogu. Patua idatzita omen dago eta askotan aintzinako agure bizardun bat bezala irudikatzen da. Azken finean, ezagutzen ez duguna ezin dugu pentsatu, eta pentsatzen dugunean, ezagutzen ditugun arau eta formekin egiten dugu, Vienako filosofo batek erran zuenez. Hau da gure zama.

Paisaia: Begiek egiten dute paisaia. Eta hitzek. Lagunek eta gertaerek, bakoitzak bere paisaia dauka. Maite ditugu zelai berdeak. Eta basamortua ez da beti antzua. Nire lagunaren begiak basamortuko izarrak dira. Laket zaizkigun paisaia ez dago etsirik. Eta hitzez asma daiteke falta den herria.

Hizkuntza: Ezberdina dugu hizkuntza. Berak ezin ditu irakurri nire hitzak. Baina nire begiak bai. Lagunak gara. Ez dago ele arrotzik gure artean. Begiak eta paisaiak erabiltzen ditugu hitzen ordez. Maitasuna oparota da beti, gorrotoa, aldiz, antzua.

seiko urrea

Juan Ignacio Perez Iglesias



Garapena

Mezu argi bat utzi digu iragan asteotan Johannesburgon egin zen goi bilerak:

Milaka gizabanakoren pobrezia da Munduak duen arazo larriena. Horrez gain, beste hainbat eta hainbat miseria daude, baina horien artean ez dago ingurumenarekin zerikusia duen arazo larriegirik, lehen munduko herritar gehienek ustea bestelakoa den arren.

Galtzen diren urte bizitza gehienak ez di-

ra galtzen ingurumena gaixorik dagoelako. Edateko ur eta janari eskasia dagoelako galtzen dira. Eta horrek ez du zerikusi handirik ingurumenarekin, garapenarekin baizik.

Gure garapen mailara iritsi ez diren herrietan hiltzen dira haurrak eta gazteak. Horregatik, herri horietako gizabanakoek, guk baino bizi itxaropen laburragoa dute jaio-tzen diren unean.

Jaiotako hamarretik bat hiltzen da urte

bat bete baino lehen, eta beste bat bost urte bete aurretik. Beherakoak eragindako ur galeraren kariatara hiltzen dira gehienak, ur garbia eta gatzak eskuratzeko modurik ez baitute. Airearen kienta, Munduko gauzarik merkeenak dira ur garbia eta gatzak, baina herri horiek duten garapen mailak ezin eskaini diezaike gehiagorik.

Gero, ahul hazten dira asko eta asko, janari gutxi dutelako. Eta ahulezia hori dela eta, infekzioen aurkako babesik ez dute. Hori nahikoa ez balitz, malaria kutsatzen duen Anopheles eltxoaren mehatxuarekin biziko dira etengabe. Jende gutxi daki iraganeko ia Europa osoan bizi zela Anopheles gaiztoa. Eta eltxoarekin batera, malaria ere bazen Europako herri gehienetan. Baina eltxoek gustukoak dituzten padurak de-

sagerrarazi genituen nahikoa aberatsak izatera heldu ginenean, eta, jakina, malaria ere, pikutara bidali genuen. Beraz, txerto onik lehenago aurkitzen ez bada, malariak jota hilko dira asko eta asko, aberasten ez diren bitartean.

Areago, hiesa ere iritsi zaie, eta sexu harremanen adinera heltzen direnean, hiru-garren izurriteari egin behar diote aurre. Ondo baino hobeto dakigu zer egin behar den hiesaren aurka edo hiesaren ondorioen aurka: hezkuntza eta kondoiak batetik, eta botika garestiak bestetik. Garapenaren esku daude bai batzuk eta bai besteak.

Horiek ditugu gaitz larriak, ez ingurumenarena. Eta badakigu zein den gaitz horietarako botika, bat eta bakarra: Garapena, ez besterik.